



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 5a

112. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A :

#### Galderak:

- Galdera, Baztan-Bidasoa eskualderako Lanbide-Heziketako Zentro Integratua eraikitzeko proiektuari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako kirol federazioendako 2020-2021 aldirako dirulaguntzen deialdiari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, ikastetxeetako lanaldi jarraituari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Berria dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaiari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, hedabide publiko bat sortzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea garatzearen telebista publiko bat sortzeari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Foruzaingoko lan-giroari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Sozietateen gaineko zergako zerga-onurak aztertzen dituen txostenari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (7. or.).
- Galdera, udalen eta kontzejuen 2022rako finantzaketari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Anfasen defizitari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen negoziazioari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan arreta presentziala berrezartzeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Ziberdelinkuentzia areagotzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (10. or.).
- Galdera, administrazio publikoan sartzean merezimenduak baloratzeko dekretuari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, diru-sarrera fiskalak handitze aldera sozietateen gaineko zergan egin beharreko aldaketei buruzkoa. María Luisa Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, oinarritzko osasun laguntzan arreta presentziala berreskuratzeko zailtasun eta neurriei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, O-NOZeko ustezko ustelkeria kasu baten salaketari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, enplegu-datuei eta etorkizuneko erronkei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Castejongo Trenasa enpresari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Castejongo Trenasa lantegiaren etorkizunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Baztan-Bidasoa eskualderako Lanbide-Heziketako Zentro Integratua eraikitzeko proiektuari buruzkoa.***MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Baztan-Bidasoa eskualderako Lanbide-Heziketako Zentro Integratua eraikitzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, gobernuak hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

2021erako Hezkuntza Azpiegituren Plan Gidariaren aurkezpenean, Hezkuntza Departamentuak jakinarazi zuen jasotako proiektuen artean Baztan-Bidasoa eskualderako Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua zegoela.

Nafarroako Gobernuak Baztango udalordezkariari jakinarazi zenez, plan horrek 500.000 euro inguruko partida bat jasotzen zuen exekuzio-proiektua idazteko. Proiektu horren obrak 2022tik 2023ra bitartean eginen ziren.

Ikastetxe berri hori, zeinak erreferentziako ikastetxe bat izan nahi baitu, Toki Ona BHla, Elizondoko LHla eta Lekaroz BHla egungo ikastetxeek egiten ari diren lana finkatuko duena, oinarritzko hezkuntza-behar bat da Nafarroa Iparraldeko eskualde osorako.

Zein egoeratan dago Baztan-Bidasoa eskualderako Lanbide Heziketa Integratuko Ikastetxearen eraikuntza-proiektua, eta zein hezkuntza-eskaintza aurreikusten du du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horretarako.

Iruñean, 2021eko irailaren 29an.

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, Nafarroako kirol federazioendako 2020-2021 aldirako dirulaguntzen deialdiari buruzkoa.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako kirol federazioendako 2020-2021 aldirako dirulaguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ekarri du Nafarroako kirol federazioendako 2020-2021 aldirako dirulaguntzen deialdian, COVID-19 pandemia dela-eta, oinarriak aldatzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

---

## **Galdera, ikastetxeetako lanaldi jarraituari buruzkoa.**

*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea ikastetxeetako lanaldi jarraituari buruz María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer irizpidetan justifikatzen da, foru-erkidegoan murriztapenak oro har kendu badira ere Hezkuntza Departamentuak jarraitzea, dirudienez urtarri-lera arte, Nafarroako ikastetxe guztietan nahitaez aplikatzen lanaldi jarraitua arratsaldeko eskolaz kanpoko jarduerekin?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Roncesvalles Solana Arana

## **Galdera, Nafarroako Foru Berria dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaiari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Foru Berria dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascuésék Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde Javier Remírezek “balorazio positiboa” egin zuen Nafarroako Foru Berria dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaiari buruz, “Nafarroako Parlamentutik atera zen arau multzoaren % 99,5 mantentzen” delako.

Azterketa kuantitatiboetatik harago, zer iritzi du Nafarroako Gobernuak epaiari berari, haren oinarrian dagoen argudioari eta boto partikularrei buruz, non ezbaian jartzen baita berriro Nafarroako autogobernua?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Euskararen II. Plan Estrategikoari buruz Bakartxo Ruiz Jasó andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jasó andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaile denak, Legebiltzarren Araudiari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran Herritarreki-ko Harremanetarako kontseilari Ana Ollo Hualde andreak erantzun dezan.

Prentsaren bidez jakin genuenez, irailaren 28an Euskarabideak Euskararen bigarren Plan Estrategikoaren zirriborroa aurkeztu zien Nafarroako Gobernuko departamentuei.

Zein izanen dira Euskararen lehenengo Plan Estrategikotik (2016-2019) bigarrenera emanen diren jauzi kualitatiboak eta berritasun nagusiak?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasó

## **Galdera, hedabide publiko bat sortzeari buruzkoa.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea hedabide publiko bat sortzeari buruz Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariorde eta eledunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuako lehendakariorde eta eledunak emandako azalpenaren arabera beharrezkoa da une honetan hedabide publiko bat sortzea, "estrategikoa" delako eta ekimen hori "enpresek" behin eta berriz eskatzen dutelako.

Zer justifikazio aurkezten dizute hedabide publiko bat sortzea eskatzen duten "enpresek"?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea garatzearren telebista publiko bat sortzeari buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea garatzearren telebista publiko bat sortzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Bat al zatoz Gobernuako lehen lehendakariordearen irizpidearekin, zeinak telebista publiko bat sortu nahi baitu Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea garatzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## Galdera, Foruzaingoko lan-giroari buruzkoa.

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Foruzaingoko lan-giroari buruz José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Foruzaingoko lan-giroari buruz?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## Galdera, Sozietateen gaineko zergako zerga-onurak aztertzen dituen txostenari buruzkoa.

*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako galdera, Sozietateen gaineko zergako zerga-onurak aztertzen dituen txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hemendik gutxira aurkeztuko denez adituen batzorde batek sozietateen gaineko zergako onura fiskalen inguruan egindako azterlana,

Zer balorazio egiten du Gobernuak sozietateen gaineko zergako onura fiskalak aztertu dituen zerga-arloko adituen batzordeak egindako txostenaren konklusioei buruz?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## **Galdera, udalen eta kontzejuen 2022rako finantzaketari buruzkoa.**

*YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea udalen eta kontzejuen 2022rako finantzaketari buruz Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontseilari jauna, udalei eta kontzejueri 2022rako dagokien finantzaketa 264 milioikoa dela uste al duzu?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

---

## **Galdera, Anfaseen defizitari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Anfaseen defizitari buruz Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik desgaitasuna duten pertsonei Gobernuak eman beharreko zerbitzuak emateagatik Anfasek duen defizitari konponbide bat emateko?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso



## **Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen negoziatioari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekazaritza Politika Erkidearen negoziatioari buruz Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nekazaritza Politika Erkidea departamentuen eta ministerioaren arteko bileren ostean? Zer balorazio egiten duzu?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **Galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan arreta presentziala berrezartzeari buruzkoa.**

*PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan arreta presentziala berrezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2021eko urriaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

COVID-19aren pandemiaren eraginez, Oinarrizko Osasun Laguntzaren ereduak aldatu behar izan da (arreta presentzialaren ordeztu, arreta ez presentziala), itxarongeletan kutsatzeak gertatzea ekiditeko. Behin pandemia moteldu eta murrizketak desagertu direlarik,

Noiz eta zenbateraino berrezarriko da arreta presentziala Nafarroan Oinarrizko Osasun Laguntzan?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru Parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak,

## **Galdera, Ziberdelinkuentzia areagotzeari buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ziberdelinkuentzia areagotzeari buruz Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran, urriaren 7an, ahoz erantzun dezan.

Nafarroan ziberdelinkuentzia 2020an % 39,1 igo dela jakin ondoren,

Zer neurri ari dira hartzen nafar herritarren aurkako delinkuentzia-mota horrekin amaitzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## **Galdera, administrazio publikoan sartzean merezimenduak baloratzeko dekretuari buruzkoa.**

*JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea administrazio publikoan sartzean merezimenduak baloratzeko dekretuari buruz Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten

du, lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berritasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak urriaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Euskararen balorazioak Nafarroako Funtzio Publikoan izan beharreko balorazioa dela eta Gobernuak gisa dauzkagun desadostasunak gorabehera, horri buruzko dekretua berandu heldu dela argi dago.

Hain berandu non iragan astean iragarri zen erizaintzako lan-eskaintza publikoan ez baita euskaraz merezimendu gisa jasotzen; bai, ordea, ingelesez, frantsesez edo alemanez. UPNko gobernuak ere ez zuten halakorik egin.

Beste behin ere galdetzen dugu: noiz aurkeztuko da dekretua? bitartean, deialdi hori eta beste batzuk zuzenduko al dituzue?

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

## **Galdera, diru-sarrera fiskalak handitze aldera sozietateen gaineko zergan egin beharreko aldaketei buruzkoa.**

*MARÍA LUISA SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea diru-sarrera fiskalak handitze aldera sozietateen gaineko zergan egin beharreko aldaketei buruz María Luisa Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten

du, Nafarroako Gobernuak 2021eko urriaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakari Chivite andreak, diru-sarrera fiskalak handitze aldera egungo sozietateen gaineko zergan egin beharreko aldaketei buruz joan den Osoko Bilkuran egindako ahozko galdera bati erantzunez, adituen talde bat horri buruz egiten ari den txostenera jo behar zela aipatu zигun.

Berriki txosten hori ezagutu dugu, "Sozietateen gaineko zergako zenbait pizgarri fiskali buruz adituen batzordeak egindako txostena" izenekoa, 2021eko iraileko data daramana.

Behin Nafarroako Gobernuak sozietateen gaineko zergari buruz eskatutako txostena ezagutu-ta, haren zer erreforma ezartzea aurreikusi du Nafarroako Gobernuak 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aplikatzeko, diru-sarrera fiskalak handitzeari begira?

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, oinarrizko osasun laguntzan arreta presentziala berreskuratzeko zailtasun eta neurriei buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea oinarrizko osasun laguntzan arreta presentziala berreskuratzeko zailtasun eta neurriei buruz Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak urriaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein dira oinarrizko osasun laguntzan arreta presentziala berreskuratzeko zailtasun eta neurri nagusiak.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

**Galdera, O-NOZeko ustezko ustelkeria kasu baten salaketari buruzkoa.***JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea O-NOZeko ustezko ustelkeria kasu baten salaketari buruz Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein neurri zehatz hartu zenituen Osasuneko funtzionario fakultatibo batek jakinarazi zizunean lan-arloko errepresaliak jasaten ari zela O-NOZeko ustezko ustelkeria kasu bat salatzeagatik, zeinari buruz aipatu baitzuen aztarna eztabaidaezina zituela?

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, enplegu-datuei eta etorkizuneko erronkei buruzkoa.**

### *RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea enplegu-datuei eta etorkizuneko erronkei buruz Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTU8**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2021eko urriaren 7ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du enplegua-datuei eta etorkizuneko erronkei buruz?

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## **Galdera, Castejongo Trenasa enpresari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak Castejongo Trenasa enpresari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2020ko uztailaren 3ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko María Luisa De Simón Caballero foru parlamentariak aurkezturiko 10-20/PES-00126 idatzizko galdera dela-eta, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu enplegua babesteko neurriei, eragindako lanpostuei eta Castejongo Trenasan inbertituriko kapitala berreskuratzeko ekintzei buruz, honako honen berri ematen du:

Trenasa enpresaren egoerari eta aurreikusitako ekintzei buruzko informazio guztia Manu Ayerdi jaunak aurkeztu zuen, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari zelarik, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzorde parlamenta-

rioren 2020ko urriaren 23ko eta 2020ko azaroaren 13ko saioetan eginiko agerraldien bitartez. Informazio guztia Parlamentuko bilkura-egunkarrietan dago transkribatuta.

Geroago, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujok 2021eko otsailaren 11ko Osoko Bilkuran aurkeztu zuen Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruzko informazioa, Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruzko gaurkotasun handiko galderaren eskutik (10-21/PES-00054).

Honekin batera bi deialdien transkripzioa eransten da, bai eta 2021eko otsailaren 11ko osoko bilkurarena ere.

10-20/PES-00126 galdera honen erantzunaren atzerapenaren zergatia da Trenasa enpresarekin zerikusia duen informazio guztia Nafarroako Parlamentuan jakinarazi zitzaizela parlamentariei, aipaturiko agerraldietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## **Galdera, Castejongo Trenasa lantegiaren etorkizunari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak Castejongo Trenasa lantegiaren etorkizunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen .

Iruñean, 2021eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko María Luisa De Simón Caballero foru parlamentariak aurkezturiko 10-21/PES-00054 idatzizko galdera dela-eta, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruz, honako honen berri ematen du:

Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruzko informazioa 2021eko otsailaren 11ko osoko bilkuran aurkeztu zen, Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruzko gaurkotasun handiko galderaren eskutik.

Honekin batera osoko bilkuraren transkripzioa eranstean da (62. Bilkura Egunkaria, 2021eko otsailaren 11koa).

10-21/PES-00054 galdera honen erantzunaren atzerapenaren zergatia da galderarekin zerikusia duen informazio guztia aipatu osoko bilkuran jakinarazi zitzaizela parlamentariari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga



